



Zer dute **komun** Eguzkiaren argiak, irratiak eta telebistak?

*Zer dute **komunean** Eguzkiaren argiak, irratiak eta telebistak?



komun

- Fraide haiek gauza guztiak zituzten **komun**.
- Hitz asko aurki daitezke bi hizkuntzek **komun** dituztenak.
- Guztioi **komun** zaizkigun miseriak.
- Kongregazioetan guztia **komun** da.



amankomun

- Gai horretan eskumena duten sailek **amankomunean** egingo dute Gobernu Kontseilurako proposamena.
- Ba al dago aukerarik diagnostiko **amankomun** bat lortzeko?
- Ez zioten elkarri ulertzen, ez baitzuten hizkuntza **amankomunik**.



erkide

- Kristau guztientzat **erkide** eta **komun** den izen batez.
- Naturalezako dohainak **erkide** dira hala onentzat nola gaiztoentzat.
- Dirudienez, hura aztertzea geldituko litzaiguke, hots, bion **erkide** dena.



Horren arabera:

- Zer dute **komun/erkide/amankomunean** Eguzkiaren argiak, irratiak eta telebistak?
- Zein da bizidun guztion ezaugarri **komuna/erkidea/amankomuna**?
- Zer ezaugarri da bizidun guztion **komun/erkide/amankomun**?
- Gizakumeok eta tximinoek **komun/erkide/amankomunean** ditugu gene batzuk.
- Gizakumeon eta tximinoen **komun/erkide/amankomun** diren geneak.



Eta ez!

- Zer dute **komunean** Eguzkiaren argiak, irratiak eta telebistak?
- Zer ezaugarri dugu **komunean** bizidun guztiok?
- Gizakumeok eta tximinoek **komunean** ditugu gene batzuk.



Baina ez dago zertan erabili beti *komun* edo *erkide* izenondoak. Horrela, testuinguruaren arabera:

- **elkarrekin** egiten dugun bizitza
 - **elkarrekiko** bizitza
- **elkarrekin** ditugun adiskideak
 - **bion** adiskideak
 - **elkarrekiko** adiskideak
- **adiskide** batzuk **elkarrekin** ditugu
- **elkarrekin** dugun gela
-



Eta ez!

- **komunean** egiten dugun bizitza
- **komunean** ditugun adiskideak
- adiskide batzuk **komunean** ditugu
- **komunean** dugun gela
- ...